ehbildu

Udal bazkari-zerbitzua martxan jartzeko mozio proposamena:

Getxon, gero eta pertsona gehiagok behar dituzte eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko laguntzak, eta horien artean dago elikadura: erosketak egitea, otorduak prestatzea edo dieta egokia eta orekatua bermatzea. Bereziki garrantzitsua da hori adineko pertsonen eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen kasuan.

Getxoko biztanleriaren %29a 65 urtetik gorakoa da. Horrez gain, 9.128 pertsona bakarrik daude erroldatuta etxebizitza batean, eta horien %53,6k 65 urte baino gehiago ditu. Datu horiek erakusten dute bakarrik bizi diren adineko pertsonen kopurua esanguratsua dela, eta biztanleriaren zahartzeak eta bakarrik bizi diren pertsonen kopuruak udal politiketan arreta berezia eskatzen dutela, pertsona horiek beren etxeetan ahalik eta denbora gehien eta autonomia baldintzarik onenetan bizi ahal izateko

Zentzu horretan, etxera eramandako bazkari-zerbitzua tresna egokia izan daiteke. Ez da soilik pertsonari eguneko otordua etxera eramatea: zerbitzuak elikadura egokia bermatzen lagun dezake, autonomia mantentzen lagundu eta, aldi berean, gizarte-zerbitzuek pertsonaren egoeraren jarraipena egiteko aukera eman.

Beste udalerri batzuetan dagoeneko martxan daude antzeko ekimenak. Ermuko Udalak, esaterako, mendekotasun egoeran dauden eta bakarrik edo antzeko egoeran dagoen bikotekidearekin bizi diren 65 urtetik gorako pertsonei zuzendutako etxeko bazkari-zerbitzua eskaintzen du. Zerbitzuak dieta pertsonalizatua eta elikadura-ohituren jarraipena jasotzen ditu, eta, otordua etxera eramateaz gain, elikagaien egoera gainbegiratzeko eta iraungitako edo aurreko egunetik sobratutako elikagaiak kentzeko aukera ere aurreikusten du. Zerbitzua astelehenetik igandera eskaintzen da.

Getxon ere antzeko zerbitzu bat ezartzeak aukera emango luke adinekoek eta mendekotasun egoeran dauden pertsonek beren etxeetan bizitzen jarraitzeko, autonomia ahalik eta gehien mantenduz eta eguneroko zeregin batzuk erraztuz. Era berean, prebentziozko ikuspegitik, pertsona horien isolamenduari eta zaurgarritasunari aurre egiteko beste tresna bat izan daiteke.

Hala ere, zerbitzu hori benetan irisgarria izan dadin, ezinbestekoa da erabiltzaile guztiei tarifa bera ez aplikatzea. Erabiltzaileek ordaindu beharreko kuota beren errenta eta ahalmen ekonomikoaren arabera zehaztu beharko da, baliabide ekonomiko txikiagoak dituzten pertsonek zerbitzua erabiltzeko oztopo ekonomikorik izan ez dezaten.

Horregatik guztiagatik, EH Bildu Getxok Udalbatzari honako akordio hauek hartzea proposatzen dio:

1. Getxoko Udalak udal bazkari-zerbitzua martxan jartzea, etxean bizi diren eta beren kabuz erosketak eta otorduak egiteko zailtasunak dituzten adineko eta/edo mendekotasun egoeran dauden pertsonei elikadura egokia bermatzeko eta autonomia pertsonala sustatzeko.
2. Zerbitzuak, gutxienez, astelehenetik igandera funtzionatzea, eta otorduen banaketarekin batera, erabiltzaileen elikadura-beharren jarraipena eta, beharrezkoa denean, haien egoeraren gaineko jarraipen soziala egitea aurreikustea.
3. Gizarte Zerbitzuek zerbitzuaren erabiltzaile izateko baldintzak zehaztea, besteak beste, adina, mendekotasun edo autonomia-maila, bakarrik edo antzeko egoeran dagoen pertsona batekin bizitzea eta zerbitzuaren beharra baloratuz.
4. Erabiltzaileak ordaindu beharrekoa errenta eta ahalmen ekonomikoaren arabera kalkulatzea, tarifa progresibo baten bidez, baliabide ekonomiko txikienak dituzten pertsonek zerbitzua eskuratzeko aukera izan dezaten.
5. Udal Gobernuak, akordio hau onartu eta gehienez sei hilabeteko epean, udal bazkari-zerbitzua martxan jartzeko beharrezkoak diren antolaketa-, kontratazio- eta aurrekontu-neurriak aurkeztea.
6. Ahal den neurrian udal zerbitzu hau antolatuko da inguruko ekoizleen parte hartzearekin.
7. Udalak zerbitzuaren berri emateko informazio-kanpaina egitea, bereziki zerbitzuaren balizko erabiltzaileengana eta haien senide eta zaintzaileengana iristeko, eta Gizarte Zerbitzuen bidez zerbitzuaren inguruko informazioa eta aholkularitza eskaintzea.

Getxon, 2026ko urriaren 5ean.

Mikel Bildosola Agirregomezkorta
EH Bildu Udal taldeko bozeramailea